

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Emakumeen askatasuna, Gobernuak jaietako sexu-indarkeriaren aurka landutako sentsibilizazio-kanpaina berriaren ardatz

*Kanpainak, toki erakundeen lankidetzaz, emakumeak jai-esparruetan bistaratzeari du helburu, askatasunari, segurtasunari eta beldurrik gabe bizitzeko eskubideari eutsiz*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 14

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez eta toki erakundeen lankidetzaz, herrietako jaietako dagokien sentsibilizazio-kanpaina berria aurkeztu du gaur goizean. “Jaietan ere libreak. Eta beldurrik gabe” lema aukeratu da aurten, jai-esparruetan gertatzen diren emakumeen aurkako erasoek sentsibilizatzea xede duen kanpaina honetarako.



Ana Ollo kontseilaria eta NBIko zuzendari gerente Mertxe Leranoz, kanpainarako landutako kartelarekin.

Jai giroan gertatzen diren sexu-erasoak prebenitzea da aurtengo kanpainaren helburu nagusia, honelako jokabideekiko tolerantziarik eza abiapuntutzat hartuta.

Iaz egin zen bezalaxe, kanpaina toki erakundeak eta gainerako instituzioak inplikatu nahi dira, beraien herritarrei ere helarazteko asmoz. Askatasuna ardatz nagusi duen kanpaina honek emakumeak bistaratu nahi ditu jai-esparruetan, jaien gozamenari eta horiek beldurrik gabe bizitzeko eskubideari eutsiz. Azkenik, erasoek aurkako jokabideak sustatu nahi ditu herritar guztiengan, gizon nahiz emakume.

Prentsaurrekoan, Olo kontseilariak azaldu du “Nafarroako gizarteak argi utzi duela ez duela onartu behar emakumeen aurkako indarkeriak normalizatuta egoten jarraitzerik. Martxoaren 8ko mobilizazioek edota Sanferminetako epaiketaren ondoren antolatutakoek irimotasun osoz jakinarazi dute”. Horren harira, Nafarroako Gobernuak lanean dihardu emakumeen aurkako indarkeriaren jatorrian dagoen desberdintasunezko etenak gainditzen lagun dezaketen esparru guzti-guztietan”. Hartara, jaietako esparruari dagokionez, kontseilariak nabarmendu du “erakundeetatik ezin dugula onartu eraso portaera normalizatua edota aisialdiaren eta festaren kultura txertatuta dagoen portaera izaterik”.

Kanpaina honen bitartez, “jaietan berdintasunez disfrutatzeko aukera bermatu nahi zaie emakumeei eta gizonei; emakume guztiek lekurik galdu gabe eta beldurrik gabe gozatzeko aukera izan dezaten”.

Bestalde, NBIko zuzendari gerenteak nabarmendu duenez, aurtengo kartelak emakumeen aniztasuna irudikatzen du, mezu honen protagonista bihurtzeko asmoz. Horren kariaz, “irudiak emakume guztiak bildu nahi izan ditu, adin, arraza eta orientazio sexual guztietakoak, identitate guztietakoak, desgaitasuna duten emakumeak barne hartuta, izan ere, libreak sentitzeko eskubidea emakume guztioi dagokigu”.

### Datuak

Emakumeen aurkako indarkeriari buruz aurkeztutako guztizko salaketa kopuruari dagokionez, 2018ko lehen hiruhilekoan 307 salaketa jarri dira, 2017ko epealdi berean aurkeztutako 323 salaketen aldean. Honek % 4,95eko jaitsiera suposatzen du. Salaketa horietan, emakume gazteek (14 eta 30 urte bitartekoek) 125 salaketa jarri dituzte aurtengo hiruhilekoa honetan iazko epealdi berean aurkeztutako 116 salaketen aldean (% 7,76ko igoera).

Sexu-indarkeriari lotutako salaketei dagokienez, 2017ko udan, ekainetik irailera bitartean, 52 salaketa jarri ziren, 2016ko udan aurkeztutako 69 salaketen aldean.

Emakume gazteen kasuan, udako hilabete horietan 37 salaketa jarri zituzten, 2016an 39 salaketa aurkeztu zituztelarik.

